

# **LEGAZPIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA**

## **SARRERA**

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Legazpiko lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

## **XEDEA**

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- 1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:
  - **Legazpiko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina** (2000ko abenduaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).
  - **Legazpiko 43. Areari (Lekuona-Azkuenea) dagokion Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa** (2003ko abenduaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

- **Legazpiko Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa, 27 Mantxola, 28 Urtatzola, 1 Mirandaola, 29 Olaberria, 31 Fieltros, 34 Bellota-GSB, 36 Urola, 38 Azkuenea, 41 Olaetxea, 6 Aizkorri, 21 Telleriarte, 20 Pisuzahar, 32 Azpikoetxe, 51 Orbegozo, 23 Goialde, 37 Zaldu eta 11 Hirigune Areetan, Ordenantzetako 104. Artikuluaren Aldaketa eta Katalogatutako Eraikinen Zerrendaren Aldaketa** (2003ko otsailaren 25an eta 2003ko irailaren 10ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).
- **Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko epaia exekutatzea** (2003ko maiatzaren 6an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

## **ALDAKETAK**

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

**1.- Hirilur lurraren, 302, 802 eta 804 zona katastralaren mugak aldatzen dira, eta 806 zona katastral berria sortzen da.**

**2.- Sortutako zonek eta 601 zonak honako balioak izango dituzte:**

<b><u>Zona</u></b>	<b><u>Hirigintz. klasif</u></b>	<b><u>(BEI)Balio Erag.</u></b>	<b><u>(MP)Apark Moduloa.</u></b>
<b>806</b>	<b>HIRITARGAIA</b>	<b>150,25 €</b>	<b>6.010,12 €</b>

## **I. ERANSKINA**

**Hirilurraren mugatze plano.**

## **II. ERANSKINA**

**Zona katastralaren plano.**